

33. AKTA

ACTA N.º 33

Zerbitzu Orokorren Batzordea

Comisión de Servicios Generales

Batzar mota: Ohikoa

Sesión: Ordinaria

Eguna: 2022-07-11

Día: 11-07-2022

Ordua: 12:40an

Hora: 12:40 h

Tokia: Udalbatza

Lugar: Salón de Plenos

Batzordeburua: Jaione Hervás Saez de Arregi

Presidenta: Jaione Hervás Saez de Arregi

Etorritakoak:

Asistentes:

Zinegotziak:

Concejales y concejales:

Juan Ramon Viles Mitxelena

Juan Ramón Viles Mitxelena

Maria Jesus Idoeta Madariaga

María Jesús Idoeta Madariaga

Ane Oyarbide Ochoa

Ane Oyarbide Ochoa

Cristina Lagé Manich

Cristina Lagé Manich

Reyes Carrere Zabala

Reyes Carrere Zabala

Zigor Etxeburua Urbizu

Zigor Etxeburua Urbizu

Jorge Mota Iglesias

Jorge Mota Iglesias

Marta Huarte Paño

Marta Huarte Paño

Beste zinegotziak:

Otros/otras concejales y concejales:

Jon Insausti Maisterrena

Jon Insausti Maisterrena

Pilar Arana Pérez (12:52an iritisi da bilerara)

Pilar Arana Pérez (se incorpora a la sesión a las 12:52 h)

Idazkaria: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkariak eskuordeturik.

Secretario: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación del Secretario.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se

ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

1.- 2022ko ekainaren 13an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 32. akta, 2022ko ekainaren 13an egindako bilerari dagokiona.

2.- Proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, Portuari buruzko Batzorde ez Iraunkorra sortzeko.

Proposamen hau ez da onartua izan, Idazkaritza Orokorren txostenaren arabera.

3.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udal-erakinak garbitzeko zerbitzuaren baldintza-agiria argitaratzeari buruzkoa.

Hurrengo interpelazioa irakurritzat eman dute:

“Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal-taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, honako INTERPELAZIO hau aurkezten dio Juan Ramon Viles Gobernanzako zinegotzi ordezkariari, ZERBITZU OROKORREN Batzordean azter dadin, udal-erakinak garbitzeko zerbitzuaren baldintza-agiria argitaratzeari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

“Etsita gaude: Udalak ez du oraindik atera Baldintza-Agiria, eta hori aitzakia moduan baliatzen ari da enpresa, ez negoziatzeko.” FCC Medio Ambiente SAUko Donostiako Eraikinen eta Udal Lokalen Garbiketako kontratuko langileek adierazi dutenez, babesgabetasun-egoeran daude.

Beren ordezkari sindikalen hitzetan, hitzarmen kolektiboaren negoziazio-prozesua kale itsu batean dago. Alde batetik, FCC Medio Ambiente SAUk ez ditu langileen lan-baldintzak hobetu nahi, Udalaren ekarpen ekonomikoa handitzen ez bada. Eta, bestetik, Batzordeak ez daki Udal Gobernuak zer asmo duen horri buruz, oraindik ez baitu argitaratu zerbitzua berriro kontratatzeko

pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 13 de junio de 2022.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 32 correspondiente a la sesión celebrada el día 13 de junio de 2022.

2.- Proposición, presentada por el Grupo EH BILDU, para la creación de una Comisión no Permanente sobre el Puerto.

Conforme a la informado por la Secretaria General, esta Proposición ha sido inadmitida.

3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la publicación del pliego de condiciones del servicio de limpieza de los edificios municipales.

Se da por leida la siguiente interpelación:

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejal delegado de Gobernanza, D. Juan Ramon Viles, para su tratamiento en la Comisión de SERVICIOS GENERALES, relativa a la publicación del pliego de condiciones del servicio de limpieza de los edificios municipales.

JUSTIFICACIÓN

“Estamos desesperadas: el Ayuntamiento no saca el pliego de condiciones y esta tardanza la utiliza la empresa como excusa para no negociar”. Esta es la situación de indefensión en la que afirman encontrarse las trabajadoras de FCC Medio Ambiente S.A.U de la contrata de Limpieza de Edificios y Locales Municipales de Donostia.

En palabras de sus representantes sindicales, el proceso de negociación del convenio colectivo está metido en un callejón sin salida. Por una parte, FCC Medio Ambiente no quiere incluir mejoras en las condiciones laborales de las trabajadoras si no hay una aumento de la aportación económica del Ayuntamiento. Y por otra , el comité desconoce las intenciones del Gobierno Municipal al respecto, ya

baldintzak arautzen dituen Agiria. Eta, gainera, ziurgabetasun hori larriagotu egiten da udal-gobernuaren jarrera pasiboarekin. Izan ere, hitzarmena sinatzeko bitartekari izan beharrea, negoziazio horretatik erabat kanpo geratu da, enpresa pribatu baten eta haren langileen arteko akordioa dela argudiatuz.

Zalantzarik gabe, gobernu ez da egoera horretatik kanpo gelditu behar. Egia bada ere hitzarmen berria Enpresa Batzordeak eta FCCk soilik sinatu behar dutela, egia da, baita ere, udal-zerbitzu bat dela, eta, horregatik, gobernu honek bermatu dezake, eta bermatu behar du, Baldintza-Agiriaren bitartez, udal eraikinen eta lokalen garbiketa-zerbitzuko langileen lan-baldintzak duinak eta bidezkoak izatea.

Nabarmentzekoa da udal gobernu honek ondo ezagutzen dituela zerbitzu horretako langileen aldarrikapenak: soldaten hobekuntza, plusak, baimenak ematea, hobekuntza materialak, joan-etorrietako denborak doitzea, etab. Era berean, ondo baino hobeto daki –Batzordeak kasu batean baino gehiagotan jakinarazi diolako– kaleak garbitzeko zerbitzuko langileek (gehienak gizonak) –eta, gainera, enpresa berekoak (FCC)– eraikinen eta lokalak garbitzeko zerbitzuko beren lankideek (gehienak emakumeak) baino soldata eta lan-baldintza hobeak dituztela. Beraz, diskriminazio-egoera argia dago udal-garbiketako bi zerbitzu horien artean, eta gobernuak ez luke horrelakorik onartu behar.

Horretarako, funtsezkoa da baldintza-agiri berrian neurri zuzentzaileak sartzea, langile horien ordainsarien eta lan-baldintzen hobekuntza bermatzeko; bi garbiketa-zerbitzuen artean dauden arrakalak amaitzeko, eta FCCren eta Enpresa Batzordearen arteko lan-hitzarmena sinatzea errazteko.

Hori dela-eta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez ditu oraindik argitaratu Udal Gobernuak udal eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzuaren kontratua berriro lizitzeko baldintza-agiriak? Noizko du aurreikusita argitaratzea? Ohartzen al da atzerapen horrek blokeatu egiten duela Enpresa Batzordearen eta FCCren arteko hitzarmen kolektibo berriaren

que todavía no ha publicado el pliego de condiciones para una nueva contratación del servicio. Y, además, esta incertidumbre se agrava con la actitud pasiva del Gobierno Municipal. Ya que, en lugar de intermediar en la firma del convenio, se mantiene totalmente al margen de esa negociación argumentando que es un acuerdo entre una empresa privada y su trabajadoras.

Es indudable que el gobierno no debe mantenerse al margen de esta situación. Si bien es cierto que la firma del nuevo convenio es exclusivamente entre el Comité de Empresa y FCC, no es menos cierto que se trata de un servicio municipal y que, por esa misma razón, este gobierno puede y debe garantizar, a través del pliego de condiciones, que las condiciones laborales de las trabajadoras del servicio de limpieza de los edificios y locales municipales sean dignas y justas.

Es de destacar que este Gobierno Municipal conoce bien las reivindicaciones de las trabajadoras de este servicio: mejora salarial, plusas, concesión de permisos, mejoras materiales, ajuste en los tiempos de desplazamiento etc. Al igual que es plenamente consciente –porque así se lo han hecho saber desde el comité en más de una ocasión- de que los trabajadores del servicio de limpieza varía (en su mayoría hombres) -y que, además, pertenecen a la misma empresa (FCC)- disfrutan de mejores sueldos y mejores condiciones laborales que sus compañeras de limpieza de edificios y locales (en su mayoría mujeres). Estamos por lo tanto, ante una situación claramente discriminatoria entre estos dos servicios de limpieza municipal que el gobierno no debe permitir.

Para ello, es esencial que el pliego de condiciones nuevo incluya medidas correctoras que garanticen la mejora retributiva y de las condiciones laborales de estas trabajadoras; medidas que permitan terminar con las brechas existentes entre los dos servicios de limpieza y que faciliten la firma del convenio laboral entre FCC y el Comité de Empresa.

Por todo ello presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué el Gobierno Municipal no ha publicado todavía los pliegos de condiciones para una nueva licitación del contrato del servicio de limpieza de edificios y locales municipales? ¿Cuándo tiene previsto hacerlo? ¿Es consciente de que su tardanza bloquea la negociación del nuevo convenio colectivo entre el Comité de Empresa y

negoziazioa?

2. Baldintza-agiriak egitean, garbiketa-zerbitzu horretako langileen soldata eta lan-baldintzak hobetzeko neurriren bat sartuko al da, aldi berean, FCCren eta Enpresa Batzordearen arteko hitzarmen kolektibo berria sinatzea erraztuko duena? Zer neurri?

3. Argitaratzean dagoen baldintza-agiria egiteko prozesuan, egin al da bilerarik zerbitzuaren egungo enpresa esleipendunarekin? Erantzuna baiezkoa bada, egin al du baldintza-agiri berriaren sartzeko ekarpenik? Zeintzuk?

Donostia, 2022ko uztailaren 1a

Reyes Carrere Zabala,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Juan Ramon Vilesek eta Reyes Carrerek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

4.- Lege zuzendariaren agerraldi eskaera, EH BILDU taldeak aurkeztua, Polizia Akademiaren eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmena dela eta.

Juan Carlos Etxezarreta ez dagoenez, agerraldia iraileko hurrengo saioan egingo da.

(12:52an Pilar Arana bilerara sartu da)

5.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.

5.1.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Datorren Donostia publizitate-liburuxkari buruz.

Hurrengo interpelazioa irakurritzat eman dute:

“Borja Corominas Fisasek, Talde Popularreko zinegotziak, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua babespean, Datorren Donostia ekimenari buruzko publizitate-liburuxkari buruzko INTERPELAZIO hau aurkeztu dio Eneko Goia alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean azter dadin.

FCC?

2. ¿En la elaboración de los pliegos se va a incluir algún tipo de medida destinada a mejorar el salario y las condiciones laborales de las trabajadoras de este servicio de limpieza y que, a su vez, facilite la firma del nuevo convenio colectivo entre FCC y el Comité de Empresa? ¿Cuáles?

3. En el proceso de elaboración del pliego de condiciones que está a punto de publicarse, ¿se han mantenido reuniones con la empresa adjudicataria actual del servicio? Y en el caso de que la respuesta sea positiva, ¿ha hecho algún tipo de aportaciones incluidas en el nuevo pliego? ¿Cuáles?

Donostia, 1 de Julio de 2022

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Intervienen el Sr. Viles Mitxelena y la Sra. Carrere Zabala, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

4.- Solicitud de comparecencia del Director Jurídico, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación al convenio entre la Academia de Policía y el Ayuntamiento de San Sebastián.

Debido a la ausencia del Sr. Etxezarreta Villaluenga, la comparecencia se realizará en la próxima sesión de septiembre.

(La Sra. Arana Pérez se incorpora a la sesión a las 12:52 h)

5.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.

5.1.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre folleto publicitario Datorren Donostia.

Se da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejale del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre folleto publicitario Datorren Donostia.

JUSTIFIKAZIOA

Ekaineko azken asteburuan, hainbat egunkarirekin batera, izenburu hau zuen publizitate-liburuxka banatu zen: «Datorren Donostia: hiriaz gozateko aukera berria».

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez dago publizitate horren edukiaren % 100 Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita?
2. Zenbateko kostua izan du publizitate-liburuxka horrek?

Donostia, 2022ko uztailaren 1a

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea”

Pilar Aranak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

5.2.- Galdera, EH BILDU taldeak aurkeztua, udan kontratatuko diren udaltzainen hizkuntza gaitasunari buruzkoa.

Hurrengo galdera irakurritzat eman dute:

“EH BILDU udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua ematen dion aukera baliatuz, galdera hau egiten dio Euskarako zinegotzi ordezkari Jon Insaustiri, udan kontratatuko diren udaltzainen hizkuntza gaitasunari buruzko azalpenak eman ditzan Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

2016tik, Donostiako Udalak hitzarmena dauka Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin tokiko poliziaren oinarritzeko eskalako bitarteko agenteen lan poltsa sortzeko. Horren arabera, Udalak Akademiako bitartekoen poltsa bakarretik egiten ditu bitarteko agenteen kontratazioak. Hitzarmenak jasotzen duenez, aldi baterako “langile horiek aldeztu aurretik hautatu, prestatu eta gaituko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal

JUSTIFICACIÓN

El último fin de semana de junio se repartió, junto a diversos periódicos, un folleto publicitario que lleva por título “Datorren Donostia: hiriaz gozateko aukera berria”.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el contenido de esta publicidad no está redactado al 100% en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco?
2. ¿Cuánto ha costado este folleto publicitario?

En San Sebastián, a 1 de julio de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen la Sra. Arana Pérez y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

5.2.- Pregunta presentada por el grupo EH BILDU, sobre la competencia lingüística de los agentes de la Policía Municipal que se contratarán en verano.

Se da por leída la siguiente pregunta:

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente pregunta al concejal delegado de Cultura y Euskera, Jon Insausti, sobre la capacitación lingüística de los y las agentes de la Guardia Municipal que se contratarán en verano, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Desde 2016, el Ayuntamiento de San Sebastián mantiene un convenio con la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la creación de una bolsa de trabajo de agentes interinos e interinas de la escala básica de policía local. En virtud de dicho convenio, el Ayuntamiento realiza todas las contrataciones de agentes interinos a través de la bolsa única de interinos e interinas de la Academia. Constituye el objeto del citado convenio “la

Akademiak (...) kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz” (Klausulak, lehena). Gainera, aldean betebeharrak zehaztuta, hitzarmenak adierazten du Akademiak hautagaien prestakuntza gauzatuko duela, eta Udalak uko egingo diola lan poltsak antolatzeari, eta modu eskusiboa baliatuko dituela “Segurtasun Sailaren poltsako bitarteko langileak” (Klausulak, hirugarrena).

2019tik gaur arte, ordea, Udalak euskaraz gaituta ez dauden agenteak hartu behar izan ditu udako beharrei aurre egiteko, Arkautiko akademiak ez duelako bermatu euskara gaitasuna izatea bere lan poltsako aldi baterako langile guztiek.

Donostiako Udalak urtez urte baliatu behar izan du euskaraz gaitutako agenteak ziurtatzen ez dituen Polizia Akademiaren bitartekoen lan poltsa, horretarako salbuespenaren bidea baliatu behar izanik. Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. plangintzak jasotzen ditu lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzeko jarraibideak, eta salbuespenei dagokienez, ondokoa zehazten du (7. puntua):

Jarraibide hauek betetzeak administrazioaren antolamenduan edo zerbitzu publikoa eskaintzerakoan ondorio larriren bat eragingo balu, salbuespenez, bestelako irizpiderik ezarri ahal izango da Euskara Zerbitzuaren aldeko txostenarekin eta Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoaren oniritziarekin.

Salbuespena urtez urte baliatuta, salbuespena arau bilakatu da. Era berean, Udal Gobernuak ez du bildu ez Euskara Zerbitzuaren, ezta Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoaren aldeko txostenik edo iritzirik ere. Bi alderdi horiek auzitan uzten dute Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plangintzak agindutakoa.

Horiek horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galderak egiten ditu:

GALDERAK

1. Euskaraz gaituta ez dauden udako bitarteko agenteak kontratatzeari dagokionez,

contratación ágil y eficaz de las personas que la integren, que habrán sido previamente seleccionadas, formadas y capacitadas por la Academia Vasca de Policía y Emergencias (...)” (Cláusula primera). Además, con respecto a las obligaciones de las partes, el convenio señala que la Academia llevará a cabo la formación de las personas aspirantes y que el Ayuntamiento renunciará a organizar bolsas de trabajo y utilizará en exclusiva “personal de la bolsa del Departamento de Seguridad” (Cláusula tercera).

Sin embargo, desde 2019 hasta hoy, el Ayuntamiento ha tenido que contratar a agentes que carecen de la suficiente competencia lingüística en euskera para atender las necesidades del verano, debido a que la Academia de Arcaute no ha garantizado la competencia en euskera de todo el personal temporal de su bolsa de trabajo.

El Ayuntamiento de San Sebastián ha tenido que hacer uso, año tras año, de la bolsa de interinos e interinas de la Academia de Policía, que no acredita su competencia lingüística en euskera, y, para ello, se ha visto obligado a recurrir a la vía de la excepcionalidad. El VI Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de San Sebastián recoge los criterios para la asignación de perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad, en cuyo punto nº 7 se establece la siguiente excepcionalidad:

Si el cumplimiento de estos criterios pudiera originar alguna consecuencia grave en la organización de la administración o en el cumplimiento del servicio público, con carácter excepcional, se podría utilizar otro criterio con el informe favorable del Servicio de Euskera y con el visto bueno de la Comisión Técnica de Normalización Lingüística.

Sin embargo, al aplicarse año tras año, la excepcionalidad se ha convertido en norma. Asimismo, el Gobierno municipal no ha recabado el informe o dictamen favorable ni del Servicio de Euskera ni de la Comisión Técnica de Normalización Lingüística. Estos dos aspectos ponen en tela de juicio lo dispuesto por el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento.

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta las siguientes

PREGUNTAS

1. En relación con la contratación en verano de agentes interinos e interinas que no tengan la

betetzen ari al da Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzan lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzeko jarraibideek agintzen dutena?

2. Salbuespena urtez urte baliatzeak ez al du salbuespena arau bilakatu?

3. Ez al da Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintza edukiz husten eta langileen arteko bereizkeria eragiten ari?

4. Kontuan izanik Udalaren lan poltsetarako irizpideak aldatzeko, Euskara Zerbitzuaren aldeko txostena eta Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoaren oniritzia behar direla, baina 2019tik ez dituela ez bata ez bestearen aldeko txosten edo iritziak bildu, zer nolako ohartarazpenak egin dizkiozu Udal Gobernuari horren inguruan?

5. Zer iritzi eman du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak salbuespena urtez urte errepikatzeari dagokionez?

6. Eskatuko al diozu Udal Gobernuari egoera hau gaindituko duen lan poltsa propioa antolatzeko?

Donostia, 2022ko uztailaren 1ean.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH BILDU udal taldeko zinegotzia"

Jon Insaustik eta Zigor Etxeburuak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Eta, bestelako aztergairik ez dagoela, batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko arratsaldeko ordu batean bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMAN DUT.

**BATZORDEBURUAK O. E. /
V.º B.º DE LA PRESIDENTA:**

Jaione Hervás Saez de Arregi

competencia lingüística requerida en euskera, ¿se están cumpliendo los criterios del VI Plan para la asignación los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad a los puestos de trabajo?

2. El hecho de que la excepcionalidad se aplique anualmente, ¿no convierte a esta en norma?

3. ¿No considera que el VI Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de San Sebastián se está vaciando de contenido y que se está generando discriminación entre los trabajadores y trabajadoras?

4. Teniendo en cuenta que para modificar los criterios de las bolsas de trabajo es necesario contar con el informe favorable del Servicio de Euskera y con el visto bueno de la Comisión Técnica de Normalización Lingüística y que desde el 2019 no se ha recabado informe o dictamen favorable de ninguno de ellos, ¿qué indicaciones ha realizado usted al Gobierno municipal con respecto a esta cuestión?

5. ¿Qué dictamen ha emitido la Viceconsejería de Política Lingüística en relación con la aplicación anual de la excepcionalidad?

6. ¿Va a solicitar al Gobierno municipal que cree una bolsa de trabajo propia con el fin de superar esta situación?

San Sebastián, 1 de julio de 2022

Zigor Etxeburua Urbizu
concejal del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen los Sres. Insausti Maisterrena y Etxeburua Urbizu, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Y, no habiendo más asuntos que tratar, la presidenta declara terminada la sesión a las trece horas de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.